

Zuloaga ta Eibar

JUAN SAN MARTIN'EK.

ZULOAGA dogu mundu guztian bere izena geien zabaiku dabent eibartarra. Bere ospetsutasuna, ez da sortu historiako beste gizonezko bezela, gerratik edo politikatik, ez: kulturaren baño.

Inazio Zuloaga Zubalea, Plazido ta Lusia'ren semia, Eibar'en jaio zan 1870'garreneko Uztailaren 26'an. Plazido, bere aita, beste artista aundi bat izan zan ta entzute geiagoko izango zan bere semia ain ospetsua egitera eldu ez ba-litz, ba semiarren izen aundiak aitarena zerbaite emetua eban.

Arrigarria bida be, Zuloaga ez zan pasau ihungo eskolatik, bere aitarena ta mutikotan Fausto Mendizabalen dibujoko eskolatik izan ezik, bere etxeko arterako giroa ondo aprobetxu eban, eta naikua izan eban bere barruan bein da betiko egizko artiaren kerka bat sortzeko. Eta bere bizitzaren ziar arte kontuko eskolak uxtatu zituan. Berezitako, artista, bakoitzak bere burua landu bain eban, ze, berak esaten eban, maixu ona zan pintorrik ez ei zan.

Biar bida, orregaitik ez zan sortu Zuloaga'ren eskolatik, berak alegiñik egin ez ehalako ihok ez zetsan jarraitu. Flores Kaperotxipik, diño arriturik: «El caso de Zuloaga es, tal vez, único en la historia de la pintura. Maestro formidable, dueño de una técnica y un dominio admirados en el mundo entero, no deja ningún discípulo. En el País Vasco nadie ha seguido la tendencia zuloaguesca. Se le ovaciona, pero no se le copia. Se aprende de él, pero no se le imita». Ori ganera, berak lagunduta, pintore bat baño geiago aurrera urten zitala, ba bera izan zan, beste askoren artan, Balenziaga ta Arrieta postu ta animas zituan.

Bere lelengo biarrak Eibar'en ein zituan, orreka ziran «Arrateko itxua», Curtis i am atsegintzari izan jakona, ta «Eibar'ko iturria» (Urkuzu'ko iturria), bere aitari asko gustatu jakona. 1887' garrenian, oindioek mutiko bat zan artian, azaldu zituan bere lanak, «Un sacerdote rezando» zan euren artian onenetariko bat. Garbi ikusten zan bere erriarentzako izan zituala lelengoko maitasunak. Baña, artia ez da erri-zulorako egina, artiak ez danka mugarik, eta ez ezkatu artista batu au edo bestia: hera, mundu zabalerako egina da. Au askok ezin dabe konprendidu ta artista batu ezkatu nai dabe poeta batu, militar batu edo politiku batu ezkatu bain jakona.

Aia ta guztibar, Zuloaga'ren bizitzaren ziar, argi ikusi dogu bere biotza erri-miñez bizi izan zala, ta 1900'garrenian, Segovia'ko puntan, «La corrida de Eibar» pintxau eban; da a plaza, Untzaga'n, San Juan jaietan, «Andrés arotzak urtero jasotzen zehana zan; bere ateakaldian Untzaga'ko torre zatza agiri zala.

Ez eite zan bere amesetako Eibar, orduan berak pintxau ebana? Zuloaga bezelako eder-zale batu, atsekabe aundi emon bistr zetsan Untzaga'ko jauregi renazentista a bota biarrak. Eibar aldatu ala, bere erriarentzako maitasuna galduaz juango zan. Eta ez arriu, itakorle, ze, nok ukatuko leuke gaurko Eibar'en bizi garan eibartarronrotzat lenagoko Eibar ez zala maitagarriguak?

Zuloaga'k, surreta urtetzeko ta surrera urten eta gero be, gizon aundi guztien moduan, gorriak ikusi biarra izan eban; gorrotogarrizko inbidiak agotan erabili eban.

Eta erbestian orreka ba ziran errikoak be ez ziran etzian geldituko, Kristo'k esan eban letxe, thor ez ei da izaten bere errian profeta. Euskaldunak esan izan dabe, Zuloaga castilla-zale amorrata bat zala eta Castilla aldekuak beti asarre, euren miseria bestetik pintatzan ez eban, euskaldun madarikatu bat zalako. Baña, egia esan, Zuloaga'k, berak nai ebana edo sentitzen ebana pintxatzan eban, iniori kasurik egin barik. Bere lanen kolore baltzak, motxallak ta arpegi baltz eta tristedun toruadoriak, Zuloaga k bere barruan trajediaren baten burruka zeroiala emoten dau; Paris'en pasiutako bohemio bizitza nekegarririk nurbant biarien garrazta erakutsi bizar izan zetsan eta miseria ta trajediaren deitari kasu ein zetsan bere paleta ta pintzelekin jasotzea. Rusiñol'ek esaten eban moduan, Zuloaga'rentzat ez zan gozotasunezko kolorerik eta arpegirik, lienzos gordintasunez pintatu biarra sentitzen ei eban.

Berriz, Euskalerriko gauza gutxi pintxau ba dau be, egin dituanak Aurelio Arteta baten mallakauk izan dira; kritikuen iritziz «Bersolaris» ta «Aamarretakos» gorrenguen mailan ipini bizar dira.

Baita, ba dira beste asko Greco, Velázquez, Zurbarán eta Goya-gandik ikasitako pintura zala esaten ebanak pe, lau pintore orreik, estiak, bata bestiagandik an ezberdinak izan da, laurengandik ikasi ba eban ez zan ez mutil txarra. Baña, Zuloaga'k, gauza bat bakarrik eukan orrena laurra: euren mallara eldu zala. Kaperotxipik garbi asko esaten daben moduan: «el arte de Zuloaga no hace en otra fuente — por lo menos visible — que no sea la suya. Nace en él. Y quedará en él, cuando desaparezca, después de haber dado abundantes glorias al pueblo vascos». Ikusita dago, Zuloaga maitatzeko artia maitatu bizar dala, ta jardun guztien gañetik, gure pintore famatua, munduko onenetarikoa izaten jarraitzen dabela, ta zenbat eta urte geiago pasau orduan da izen aundiaguan jabe izango da. Ihok ukatu ezin geikiana da Inazio Zuloaga izan dala Eibar'ek mundura emon daben gizonik aundiiena. Neuk beintzat ez daukat ihogaitik saltzko, bera ta bere biarra.

Bere biarretan, atzekaldiak ta soñekuak arin dibujauaz egiterakuan, ba eukan Olabe'ren aide bat. Ori zala ta, gure erriko pintoriok akademismotik biurrituta eibizela esaten ebanak pe ba ziran; baña orduan ori esaten ebanak gaurko surrealista ta astratoak ikusiko ba-litukie zer esango efe leukie? Zuloaga'k eta Olabe'k egin izan dabienna da, anima bako akademismoari iger, bakoitzak bere tankerara utilizauaz. Izan be, galdua dago ihore oretara jausiendan artista. Bere nortasunaren kerka azaltzen ez daben artista ez dabil zintzotanak, eta artea sentimentuen zintzotasun utsa da.

Gauza guztien gañetik, ukatu ezin geikiana da, Zuloaga'k Eibar oso mate ebaia. Erbestian bere izena ospetsu egin ondoren be Eibar'endako erri-miñez bizi izan zan. Ta Errroma'n lelengoko premixia atara ebanian, poztu zan Eibar'ko erria ta sekuilako jai-aldia organizau eban, bere omenez Salvador Etxagirre, Casino de la Amistad, eko presidente buru zala, Eibar'en ziran soziedad guztiak dei bat ein zesen ta 1912'garreneko Ilbeltzaren 5'a aukeratu zan onenaldi orri egiteko. Eguna eldu zanian Ayuntamiento, txistua ta tanbolinak, retribu eban, Astaburuaga alkatiak eta Eibar'ko 21 soziedadeko errepresentantiak. Ondoren Ospitxalera osteria bat egin eban ta milia peseta ta sei oe barri emon ei zituan, pintoriak. Gero Astelena frontoian izan zan baskaria; an izan zan Fausto Mendizabal, bere lelengoko dibujo maixua be, ordurako laroegi urte zituan, ta zortzi milia firmakin album bat emon ei zesen; baskalonduan, Zuloaga'k, zutinduta, eske-

rra emonaz, diskurso bat ein eban onela amaitzeko: «Eibartarra naiz, eibartarra izango naiz, eta eibartarra ilgo naiz; Viva Eibar!»

Inazio'k, bere andria paristarca ebanet eta bera be Frantziaren famatua egin zanez, maite eban mugaz-andikor erria be ta Europa'ko gerra ondoren, ango umezurtzen alderako diru batze bat egin eban ta Eibar'ko biargin guztiek egun bateko irabasia emon eban. Ogeta analau milia pesterano batu zan ta Zuloaga bera izan zan Poincaré, ordiango presidentia zanari, eskuz-esku emon zituztena.

Gero ta gero be, bere erri ingurua zeroian berekutan, mundu guztian ibili ondoren, bere izena goren igo zanian eta beretza deskantatu leku baten biarriztan izan zanian, Eibar'ik urrindu batik, etxe bat egin eban Zumaya'n. Ordura arte be gure mendia ziero laga barik bizi izan ba-zan be, andik aurrera, bere egunki geienak bertan pasatza erabagi eban. 1914, garrenian egina da Zumaya'ko Santiago-Etxea. Gero berriz, Urraki mendian, Goyaz'tik belaxe, jaso eban refugio bat (Gaur egunian, refugio ori, bere senidai, Eibar'ko Club Deportivo'ari lagata dake).

Arrateko elizara lau kuadru emon zituan, atzenengoe gerratian zerbaite estropoea zirala ta harriz ipintzera etorri zan, ipini ta gero, Aina Birgihai erreza ondoren, bere kuadruetik begiratuz esan ei eban: «Ortxe usteldu zaitez».

Baña, Eibar maite ba eban be, nai ta nai ez, min aundi artu bizar izango eban, lehenengo bere etxe ederrari aldia bateko ornia tapatzakin ta gero gerran erretziak. Bere etxe galduta, bere lagun-zarrak, il ez ziranak, gerriak munduan ziar sakabanaturik, bere denporako Eibar falta izan jakon. Beretza Eibar ez zan lena. Eta Eibar era, bere zartzaorao, gauza agertzen zan, ta ez zan Eibar barri oniek atzo ebalako, ez; bere aiskiderik gordetzen ez eban Eibar oniek tristura emoten zetsalako basio.

Azkeneneko urtietan be, biotz barruan zeroian bere Eibar. Eta Madrid'en bere zartzaoroko azken urtietan azaldu eban espousitio batian, bodegoi batzuekin nastian, mutikotan Eibar'ko etxian izan eban pinturako estudioa azaltzen zan. Zarturik, bere lelengo izakerara gogoz itsulrik, biotzettiko ames bat bezela jaioterrako orri tzapeneran murgildurik ibiltzen zan gure maixu aundi. Eta dudarik barik, azken urte ortean, bein baño geiagotan ibiliko zan bere butuan «...eibartarra ilgo naiz». Ze, Eibar'ko damaskinu-gintzako grabadoriak, urtero, San Plazido ondorengo domekan, Zumaya'rak egiten daben osteria orretara (Inazio Zuloaga'k berak, bere aita zanaren errekuendoz ipiniltako jai da), igesko urtian neu be juan tintzan eta an entzun netsan pintorearen alaba her-berari: «Zuek ha-zenkizue gure aita Eibar'kin zenbat eta zenbat gogoratzan ban; Eibar izan zan aitarenaz errik maitienas».

Pozgarria da bere mallako gizon batek erri-miñea aintzakuntza sentitza. Aurrerago esan doten bezela, artistak errirako baño geiago mundurako dira; Iparragirre batzen izketan esango gendukan moduan: «...emana da zahar zazu mundura frutua». Ta ez pentzau guk bere alde egiañagaitik bera jaso geinkianik; bera da, bere izen aundiak, Eibar jasotzen jarraituko dabena.

José Charola e Hijos

S. A. C.

Maquinaria - Herramientas

EIBAR

OJANGUREN Y FERNANDEZ

Tornillería de precisión

Roscas por laminación de alta
precisión

Macharia, 9

EIBAR